

## BALOREZKO PROPOSAMENA



Gure erloju antolatzailearen betebeharra, bere izenak adierazten duen bezala, ikasleek eskolan dituzten egin beharreko gauzak antolatzea da. Horren ondorioz, lasaiago biziko dira. Agian, beren eguna ondo antolatuta edukitzearen ondorioz eskolan emaitza hobekak lortuko dituzte? Honekin batera, azterketak daudenean eta beste hainbat datu adieraziz (entrenamenduak, ingelesa, akademia... noiz duzun azalduz) erlojuak antolatuko du zure denbora libre, hobeto ikasi dezazun. Honetaz gain, irakasleekin harremanak erlojuak ahalbidetzen ditu . Hau da, irakasle batekin hitz egin nahi izanez gero, erlojuak mezu bat bidaliko dio irakasleari. Erloju bakoitza pertsonala denez, mezua bidaltzerakoan, ez da beharrezkoa zure izena jartzea, mezuan zuzenean atxikitzen baita. Horrez gain, lanen bat entregatu behar badute, etxeko lanak badituzte edo eta Gorputz Hezkuntza badute, oharrak bidaltzen dizkie ahaztu ez dezaten.

Ebaluazioetako notak, erlojuan adieraziko dira. Ondorioz, ez da hainbeste paperik gastatuko. Azterketako emaitzak ere adieraziko dira, horrela ikasleek izango dute leku bat non ikus ditzazketen nahi dutenean beren notak.

Nahiz eta merkatuan erloju antolatzaileak egon, gurea besteengandik bereizten da ikasleentzat bideratuta baitago. Honetaz gain, besteekin konparatuta nahiko ekonomikoa da, 55€ balio baititu. Gure produktuaren bezero nagusiak ikasleak direnez, erlojua guztiz prestatuta dago bere beharrak asetzeko eta bere eguneroko bizitzara moldatzeko, produktua ezin praktikoagoa eginez. Baita ere pertsonalizatzeko aukera dago, erlojuaren korrea aldatzeko aukera dago eta hainbat koloretan aurki ditzakegu.